# 1. INDARGUNEAK ETA AHULTASUNAK

| INDARGUNEAK (borratu ahulgune direnak) | |
|---|---|
| **1. arloa. Konpromiso profesionala** | |
| | 1.1. Antolamendu-mailako komunikazioa<br>1.2. Lineako ikaskuntza-inguruneak kudeatzea<br>1.3. Lankidetza profesionala<br>1.4. Teknologia digitalak eta ikastetxearen azpiegiturak<br>1.5. Gogoetan oinarritutako jardunbide profesionala<br><br>1.7. Teknologia digitalen bidezko ikaskuntza profesionala<br>1.8. Teknologia digitalen ikaskuntza profesionala |
| **2. arloa. Baliabide digitalak** | |
| | 2.1. Baliabide digitalak - Bilatzea eta aukeratzea<br>2.2. Baliabide digitalak - Sortzea<br>2.3. Baliabide digitalak - Aldaketak egitea<br>2.4. Baliabide digitalak - Kudeatzea eta babestea |
| **3. arloa. Irakaskuntza eta ikaskuntza** | |
| | 3.1. Irakaskuntza eta ikaskuntza-irakaskuntza<br>3.2. Orientazioa<br>3.3. Lankidetza-irakaskuntza<br>3.4. Autorregulatutako ikaskuntza<br>3.5. Garatzen ari diren teknologia berriak |
| **4. arloa. Ebaluazioa** | |
| | 4.2. Ebidentziaren azterketa |
| **5. arloa. Ikasleak ahalduntzea** | |
| | 5.1. Desberdintzea eta pertsonalizatzea<br>5.2. Irisgarritasuna eta inklusioa<br>5.3. Ikasleek modu aktiboan parte hartzea<br>5.4. Urrutiko ikaskuntza eta ikaskuntza mistoa |
| **6. arloa. Ikasleen gaitasun digitala sustatzea** | |
| | 6.1. Informazioa eta datuak, alfabetizazioa |

6.2. Komunikazioa eta lankidetza
6.3. Edukiak sortzea
6.4. Segurtasuna eta ongizatea
6.6. Arazoak konpontzea

| AHULGUNEAK (borratu indargune direnak) | |
|---|---|
| **1. arloa. Konpromiso profesionala** | |
| | 1.6. Bizitza digitala<br>1.9. Pentsamendu konputazionala |
| **2. arloa. Baliabide digitalak** | |
| | 2.5. Baliabide digitalak - Kudeatzea eta babestea |
| **3. arloa. Irakaskuntza eta ikaskuntza** | |
| | |
| **4. arloa. Ebaluazioa** | |
| | 4.1. Ebaluazioa eta atzeraelikadura<br>4.2. Ebidentziaren azterketa<br>4.3. Atzeraelikadura eta planifikazioa |
| **5. arloa. Ikasleak ahalduntzea** | |
| | 5.1. Desberdintzea eta pertsonalizatzea<br>5.2. Irisgarritasuna eta inklusioa<br>5.3. Ikasleek modu aktiboan parte hartzea<br>5.4. Urrutiko ikaskuntza eta ikaskuntza mistoa |
| **6. arloa. Ikasleen gaitasun digitala sustatzea** | |
| | 6.5. Erabilera arduratsua<br>6.6. Arazoak konpontzea |

## 2. Nire konpetentzia digitala hobetzeko ideiak (adibidea)

**1. arloa. Konpromiso profesionala**

1.2. Lineako ikaskuntza-inguruneak kudeatzea

Mailaz igotzeko, e-learning inguruneetan arazo etikoak nola jorratu aztertu behar dut, batez ere irakasleen datuei dagokienez. Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra (DBEO) irakurri eta aplikatu behar dut.

1.5. Gogoetan oinarritutako jardunbide profesionala

Konpetentzia digitala eta praktika profesionala hobetzeko, nire lankideekin estuago lan egin beharko nuke, haiengandik feedback-a jasotzen (adibidez, informazioa parekoen artean trukatzeko saioak antolatzen, nire klaseetako bideoak grabatzen, beste irakasle batekin klasean sartzen, eta abar).14

1.6. Bizitza digitala

Nire profil digitala hobeto zaindu beharko nuke, adibidez, nire aztarna digitala maiz arakatzen edo nire pribatutasun-konfigurazioa ondo administratzen, besteak beste. Horretarako, zibersegurtasunari buruzko formakuntza ondo etorriko litzaidake.

1.9. Pentsamendu konputazionala

Ez dakit ezer pentsamendu konputazionalari buruz. Beraz, informazioa jaso beharko nuke,
eta nire egunerokotasunean aplikatzen hasi.

**2. arloa. Baliabide digitalak**

2.4. Baliabide digitalak - Kudeatzea eta babestea

Nire eduki digitalak biltegiratzeko eta kudeatzeko babes- eta segurtasun-neurriak askoz
hobeto aplikatu beharko nituzke. Adibidez, nire gailuak pasahitz sendoagoekin babesten;
aldian behingo segurtasun-kopiak egiten; datu-politikaren, erabilera-terminoen, segurtasunaren eta babesaren arabera, biltegiratze eta lineako zerbitzuak hautatzen, eta
abar.

**3. arloa. Ikaskuntza eta irakaskuntza**

3.2. Orientazioa

Teknologia digitalak erabiliz, ikasleei, baita irakasleei ere, feedback-a eta hausnarketarako
aukera gehiago eman beharko nieke, denbora errealean eta /edo modu asinkronoan.

### 3.4. Autorregulatuko ikaskuntza

Nire ikasleak, baliabide teknologikoen bilaketan, gehiago inplikatu beharko nituzke, ikasteko autonomia eta sormena garatzen haiei laguntzeko. Izan ere, batzuetan nahikoa
mugatzen ditut zeregin jakin bat egiteko erabili behar dituzten tresna digitalak aurkeratzerakoan. Konfidantza handiagoa izan behar dut haiengan eta haien hautatzeko
gaitasunean.

### 3.5. Garatzen ari diren teknologia berriak

Normalean tresna digital berberak erabiltzen ditut, eta ez ditut ikertzen nire klaseetarako
baliagarriak izan daitezkeen tresna berriak. Horretarako, oso komenigarria izango litzateke
neure kabuz ikertzeaz gain, beste lankide batzuekin hitz egitea eta haien iradokizunak aztertzea klasean inplementatzeko .

## 5. arloa. Ikasleak ahalduntzea

### 5.2. Desberdintzea eta personalizatzea

Irakaskuntza pertsonalizatuagoa egin beharko genuke. Adibidez, tresna digitalak erabil ditzaket ikasleen zailtasun-mailak kontuan hartuz, edo behar bezala betetzen ez diren jarduerak ikasleekin aztertzen, beste aukera batzuk eskaintzeko. Horretarako, agian oso
lagungarria izango litzateke niretzat Irakaskuntzaren Diseinu Unibertsalaren (IDU - DUA)
inguruko ikastaroa egitea.

### 5.3. Ikasleek modu aktiboan parte hartzea

Konturatu naiz batzuetan ez ditudala teknologia digitalak erabiltzen ikaskuntza aktiboa bultzatzeko. Zentzu honetan hainbat tresnetan formakuntza behar izango nuke (adibidez,
wikiak, errealitate birtuala eta areagotua, robotika edo makerspace, besteak beste).

## 6. arloa. Ikasleen gaitasun digitala sustatzea

### 6.5. Erabilera arduratsua

Ikasleek modu arduratsuan eta etikoan jardutea eskatzen duten ikaskuntza-jarduera gehiago inplementatu beharko nituzke klasean (adibidez, sareko informazioaren

aurrean
kritikoagoa izatea, fake news aztertzea, sarean positiboki jokatzea, datu pertsonalak babestea, copyright-legea betetzea, iritzi desberdinak errespetatzea, eta abar).